


# KarKara

55A

55. zenbakia

Orio eta Aiako aldizkaria

1996ko azaroa



Aita Jertxundi  
(1896 - 1996)

Heriotzaren mendeurrena  
ospatzeko ekitaldiak

— Orio, 1996ko azaroaren 8, 9 eta 10 —

**ZENBAT**

*balio du*

**KARKARAK**



## **ZUK DUZU HITZA**

Lagunzaile bila ari gara. KARKARA etxearen jasotzearen truke **urtean 2.500 PTA** ordaintzeko prest dauden **200 oriotar** behar ditugu.

**'KARKARAren lagunzaile'** izan nahi baduzu, oso erraza da: KARKARAren ale honekin batera papertxo bat doakizu; bete ezazu papera zure datuekin eta utzi ezazu KARKARAren buzoian (Udaletxe atzeko karkaran dago oraindik; helbidea aldatu dugu, baina buzoia ez) edo bidal ezazu korreoz. Gu arduratuko gara gainontzekoaz.

KARKARA TALDEA

# KarKara

Kultur Etxea  
20810 OILO  
Tel. 83 15 27

Lege-gordailua  
55 346/90

ISSN  
1132-1105

Tirada  
1.400 ale

Zuzendaria  
Miren Etxebema

Erredakcio-taldea  
Miren Etxebema;  
Iñigo Fernández,  
Iñaki Goikoetxea, Ana G.  
de Txabarri, Ama Iturralde,  
Aialdi Iturain, Almudena Peña,  
Javier Zabaleta.

Aitako erredakzioa  
Bilbao

Publizitatea  
Miren Etxebema

Kolaboratzileak  
Aingeru Andres, Hémi  
Ikastola, Pat Cowie

Argazkiak:  
Ana G. de Txabarri

Aituen orrialdeko marratza  
Jove

Banatzilea  
Miguel Ángel Sanz

Inprimategia  
Gertu Koop, E. (Onari)

## 4 GUTUNAK

5 **HERRIAN GALDEZKA** *Zer iruditzen zaizu KARKARAri diruz laguntzea 2.500 pezetarekin?*

## 6 HERRIKO KONTUAK

## 11 KIROLAK

14 **IRITZIA** *Aingeru Andres*

15 **AIAKO KARKARA**  
**ERREPORTAJEA** *Santu Guztien bezpera*

19 **GAIA** *Orioko apustu xelebreak*

22 **ELKARRIZKETA** *Karmele Aranburu*

## 24 DENETIK PIXKA BAT

29 **KOLABORAZIOA** *Herri Ikastola*

## 30 AZKENA

### 1996KO PUBLIZITATE-PREZIOAK

Modulo bat	1.500 PTA
Bi modulo	3.000 PTA
Hiru modulo	4.500 PTA
Lau modulo	6.000 PTA
Sei modulo	9.000 PTA
Orrialde erdia	13.500 PTA
Orrialde osoa	27.000 PTA

Prezio hauek zenbaki baterako  
balio dute. Publizitatea urteko  
zenbaki guztietan jarri nahi dutenel  
% 10eko deskontua egingo dingu  
prezio hauen gainean (urtean  
hamar zenbaki argitaratzen  
ditugu).



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioak  
diruz lagundutako aldizkaria

## Orion ere gazteak mugitzen

Jadanik bagara hainbat gazte geure herriak duen dinamika ilogarri eta aspergari honeiatik ateratzera behartuta gaudenak. Orioko gazteetan zuzenduta herri mailan ez dago inolako ekintzarik, hau da, udaletxeak ez digu inolako irtenbiderik ematen gazteek ditugun kezkak asetzeko eta gure atse denbora era probetxugarririk batean betetzeo. Geure aise denbora era penagarri batean galtzera behartzen gaituzte (tabernaz taberna ibili, bankuetan eserita pipak janaz denbora pasa, karietan edo bideo makinetan hainbat ordu galdut eta abar luze bat).

Hau dena ikusita, egokia iruditu zaigu gazteerizat talde bat sortzea. Gazte Asanblada bat hain zuen ere, gazteek gizarte honetan ditugun arazoet erantzun bat emateko eta bereziki gazteetan zuzendutako ekintzak antolatzeko. Argi utzi nahi dugu ez garela inongo talde politikorik ez eta talde politikoa batetik sortutako taldea ere. Baino inor engaina ez dadin badu kutsu politiko bat. Taldea gazteei zuzendutako denez, gazteek gizarte honetan sofrizten ditugun erasoo beti gaitzetsiko ditu, hala nola: gazteek dugun langabezi tasa handia. Euskal Herrian batez ere, intsumisioaren arazoa, gaztetxe mugimendua, euskararen egoera...

Bukatzeko, Orioko gazte guztialak animatzen ditugu Gazte Asanblada

honetan parte hartzen: Orioko herrian gazteek geure txokoak badugu, gu baikara etorkizuna. ORION ERE GAZTEAK MUGITZEN!!!

ORIOKO GAZTE ASANBLADA

## Itxialdia udaletxean

LABen iniziatiabaz aurrera eraman den itxaldian euskal preso politikoak euskal langile klasearen partaide izaki, gure presoen eskubideak errespela daitezen exijitzen dugu. Euskal Herriaren askatasunarekiko konpromezu handiena erakusten dutenak izanik, LABek bere elkartasuna adierazten die Euskal Herria eta Estatu Espainiar nahiz Frantziaren arteko gatazkaren ondorioak jasaten dituzten euskal presoak.

Euskal langileok ezin dugu itsilik geratu euskal presoak eta beren senideak bizitzen ardi diren egoera lariaren aurrean. Heriotza, sufrimendua, isolamendua, palanzk, humillazioa, galvotasunak eta bakardadea.

Dagoeneko 10 dira kartzeletan erahildako euskal presoak eta 5 errepidetan bizia galdut duten presoentzakoak. 1987. urtetik horri 350 jipo gertatu dira Estatu Espainoleko kartzeletan funtzionarioen eskutik. 132 preso dira beren kartzela zigorraren hiru laurdenak aurten beteak izanik, legez

kalean egon behariko luketenak.

Isolamendu egoerak here horretan dirau, kartzela barnuan ikastea miraria bihurtu da. Euskara erabilizzeak ezinezkoia izaten jarraitzen du, eta familiarrek kriminalizatuak izaten dihardute, akosatuak eta humiliatuak hori beragotik, senideak direla.

Bien bitartean, narkotrafiko buruak, GALen sustatzaileak, Josu Muguruza eta Santi Brouarden hiltzaileak, otsailaren 23ko estatu kolpeko partaideak eta abar... kalean dabiltsa lasai asko, eta zigorra barkatu ere izan zaie.

Hau da lazo urdinako sastbaizearen demokrazia: tortura, errepresioa eta armen bidez inposatutako balera.

Egun, euskal presoen itxaropen bakarra, langile eta herritar guztiak mobilizazioa eta borroka da. Borroka horretan jarraitu behar dugu euskal preso guztiek Euskal Herria ekarri arte.

ITXALDIKO 14 KIDEAK



Karkasak erdi bero-gutxi harzen alkisturian antzeriatuko osasen odota irizten erantzun dezakon.

Karkasak argitamenduan hirreman datilek, osasik edo zutik, baldin eta iturri alpatzen bidea

Karkasak here egiten dio eskutikak laburtsako eskuabideen



GIZONEZKOENTZAT  
ILEAPAINDEGIA

13 47 29

**T A L A I**  
**AHOLKULARIAK, S. L.**

**ASESORIA:**


FISKALA, LABORALA  
JURIDIKOA, KONTABLEA,  
DIRUA AURREZTEKO

**Iñaki Olariaga Larrañaga**

Eusko Gudari, 50-B, 1.E Telefaxa: 13 37 20

**MAPFRE  
ASEGURUAK**

- ✓ Osasun laguntza
- ✓ Etxeak erosteko finantziazioa
- ✓ Inbertsio fondoak
- ✓ Jubilazio planak



# Zer iruditzen zaizu KARKARAri diruz laguntzea 2.500 pezetarekin?

Azken aldiz honetan KARKARAren diru kontuak ez dira batere onak eta honek aldi zikariaren laguntzaile ekonomikoak bilatzera bultzatu gaitu. Horregatik jendea kobratzearen aldekoan den ala ez, edota, diruz laguntzea zer iruditzen zaien jakin nahi izan dugu.

**AINARA AGIRRESAROBE**

18 urte

Laguntzaile zintzuen idea ondo dago, irakurleak mantenduz zizkuna. Irautzeko interbide bat izango bebitatzeko.

Bestade, kobratza era ez zait gauki iruditzen. Oion euskara biltezen duen komunikabide baxuna baina.

**BITTOR ZINKUNEGI**

37 urte

Aldizkanaren laguntzaile izate hon oso ondo irudutzen zit. Inor behartu gabe, norberak bere borondatzez lagundu dezakeelako.

Ni kobratzearen aldekoan nazi, lehen horrela zen, KARKARAren bitartez herriko gauza asko jasaten ditugu.

**JOSU ALDAKUR**

18 urte

Laguntzailearen idea ondo dago, jendeak aldi zikariaren koko duen balorazioa ikusteko.

Kobratzekotan, modu onean izan beharko luke; herriak duen produktu hau oso aberatsa baita, bai euskara eta bai informazio aldetik.

**FELI LOZANO**

47 urte

Nik uste dut laguntzaile ekonomikoak izaneak kobratza barne alkozat eskuagosa dela.

Aldizkaria jasotzean jende aploez da kontuztzen beretan zein oten esku artean.



# Orioko Ogia



Frontoi ondoan  
Tfnoa: 83 01 89

# LIZASO

**ERLOJU eta  
BITXI DENDA**

Orio, Xela 5 Tfnoa: 83 10 90  
Zarraga, Ipar 6 Tfnoa: 83 17 43

**OLIDEN  
HARATEGIA**  
EUSKO GUDARI, 2  
TFNOA 83 10 86

**PA  
C  
SO  
KA**  
DINETAKOAK

**Haurrentzako  
oinetakoak**  
San Nikolas, 9 behe  
Tfnoa: 83 28 05

**URANGA  
BURDINDEGIA**  
**EUSKO GUDARI, 7**  
**TFNOA 83 12 36**

# Aita Lertxundiren omenezko ekitaldiak egingo dira azaroaren 8, 9 eta 10ean

110 lagunetik gora etorriko dira Chipionatik

**Aita Lertxundiren heriotzaren memoria ospatzeko ekitaldi ugari antolatu dira aurten Tanger, Chipiona eta Compostelako Santiago. Omenezko saio horiei Orion emango zaie bukaera azaroaren 8, 9 eta 10ean antolatutako ekitaldien bitartez.**

**Aurreko KARKARAN** adierazi genuen bezala, ia 50 oriotar izan ziren Chipionan abuztuan, hango frantziskotarrek eta Udalak antolatutako aste kulturallean parte hartzen.

Abuztuko bidaiaaren ostean, Udaleko Kultura Batzordeak del egin zien herritarrei azaroko ekitaldi hauen antolaketan parte hartzeke, eta, del horren ondorioz, batzorde bat osatu zen. Batzorde horretan, batez ere, Chipionan izandako oriotarrak aritu dira lanean eta bilera ugari egin dute Aita Lertxundiren omenezko Orinoko ekitaldi hauek antolatzeko.

## HIRU EGUNeko PROGRAMA

Hau da azaroaren 8, 9 eta 10erako presztatu den ekitaldi-programa:

### Azaroak 8. ostirala

19:00etan kultur etxearen hasierako ekitaldia. Hitz egingo dute: Onofre Núñez Azpilikueta frantziskotarrak, Miguel Valleccillo frantziskotarrak eta Anjel Lertxundi idazleak.

### Azaroak 9. larunbata

18:30etan elizan: meza, Jose Maria Sestien Elizbarritiko gotzainak emana. Meztan Salatxo abesbatzak kantatuko du. Elizkizuna ETBk emitituko du.

19:30etan: Orioko eta Chipionako alkateek oriomenezko plaka bat desestalik dute Aita Lertxundi jalo zen etxearen. Hau da plakaren testua:

*Etxe honetan jalo zen Aita Lertxundi 1836ko otsailaren 24an.*

Misiolarifrantziskotarra, hizkuntzalaria eta ospe handiko diplomatiko oriotarra.

Orioko herriaren omenaldia haren heriotzaren mendeurrenean.

Orio, 1996ko azaroaren 9an.

Ondoren, kultur etxearen inaugurazioa, Eusko Jaurlari-

\*Misiolarifrantziskotarra, hizkuntzalaria eta ospe handiko diplomatiko oriotarra\*. Hala die Aita Lertxundi jalo zen etxearen jarriko den plaka.



tzaren eta Gipuzkoako Foru Diputazioaren ordezkariekin.

### Azaroak 10. igandea

11:00etan elizan: meza, Antonio Peteiro monsinoreak, Tangerko artzapezpikuak, emana.

12:30etan plazan: Harribil dantza-taldearen emanaldia eta herri-kirolak.

14:30etan: Senide arteko bazkaria, Bazkaritako txartelak Udaletxean hartu behar dira.

## ERAKUSKETA

Aita Lertxundiri buruzko erakusketa antolatu zuten Chipionan abuztuan eta hango material batzuk

Orion ere erakutsiko dira. Erakusketa kultur etxearen izango da zabalik horiak egun eta orduetan: azaroaren 8an, inaugurazio-ekitaldian; azaroaren 9an, 11:30etatik 14:00etara; eta azaroaren 10ean, 11:30etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30etara.

## AITA LERTXUNDI-REN BIDEOA

Chipionako frantziskotarrek bideo bat egin dute Aita Lertxundi buruz, eta bideo hori ikusgai izango da kultur etxearen honako egunetan: azaroaren 8an, inaugurazio-ekitaldian; azaroaren

9an 13:00ean; eta azaroaren 9an, 13:00ean eta 19:00etan.

## KANPOTAR UGARI

Aita Lertxundiren omenezko ekitaldi hauetan parte hartzea kanpoko jende ugari etorriko da gure herriira. Chipionatik 110etik gora lagun etorriko dira, hango alkatea buru izango duen expedizioan. Tanger eta Santiago-lik ere etorriko da hainbat lagun.

Chipionakoak ostegunean iritsiko dira, gaueko 21:30etan eta Zestoako Arozena hotelaean hartuko dute ostatu, gurean egingo dituzten egunetan.

**Hartitz  
Arrizabalaga  
Patagoniako  
lurretan**

Hartitz Arrizabalaga gazte oriotarra Argentinako Patagonian izan da aurrengo udan, Ikerketa batean parte hartzen.

Hartitz Itsas Zientziak ikasten arri da Kanarietan, eta, adierazi digunez, "neure bizitzako ametsa bete dut: baleak ikustea". Udan Orintok kanpoa joateak pena eman bazon ere, esperientzia aberasgarria izan dela dio.

**Santu Guztien  
eguneko  
elizkizunak**

Santu Guztien egunaren bezperan arratsaldeko 7etan izango den meza. ETBk grabatuko du. Eta hurrengo goizean, 10:30etan ikusi ahal izango dugu telebistan. Santu Guztien egunean, eguerdiko ordubatean izango da meza.



Goenkaleko protagonis-tak harriko kaleetan ikus ditzakegu

## Oriotarrak 'fitxatu' dituzte Goenkale saioa grabatzeko

Orain dela bi urte hasi zen sugetzarrak, Goenkalek, oraino honetan Orio ospetsu egiteko asmoarekin dator. Ostiraleri hemengo kaleetan zehar zenbait eszena grabatzeaz gain, bertako jendea hartu dute lan txiki batzuk egiteko.

Badira diaforenko pertsonaien fijo batzuk, Nekane Urbieta, Arantxa Satrustegi, Arantxa Peña eta Milagros Alday. Hauek ia astero jardutzen dute estra lanak egiten.

Beste batzuk, Arantxa Alonso eta Elizabeth Bello, kapitulu batean agertu dira, oraingoz behintzat.

Orain arte aipatutako aktore herri hortek paseatu edo elkarritzeta txiki bat egin dute, baina, bada bestelakoik ere. Ibai Esoain oriotarrak eszena oso bat egia zuen. Bertan, lapurarena egiten du eta azkenean harrapatu egiten omendu dute.

**Ibai Esoain  
bigarren Lizardi  
sarian**

Ibai Esoain bigarren postuan geratu zen Zarauzko Lizardi Bertsolari Gazteen txapelketan. Bertan, Xabier Sukia oriotarrak ere parte hartu zuen, eta honek ere finalera iristea lortu zuen.

**Iaz baino 50 milioi  
pezeta gutxiago  
antxotan**

Oraindik aurtengo arrantza harrapaketen balantzea egin ez bada ere, Kofradiako idazkaria esan digunaren arabera, 50 milioi pezeta gutxiago izan dira aurtzen antxoari dagokionean behintzat. Hala ere, aipatu beharra dago, aurtengo kanpainan iaz baino bapore bat gutxiago ateratzen dela itsasora.

Bestalde, atunari dagokionean, eta orain arte harrapatu-takoaren arabera, badirudi iaz baino hobeak izango dela aurtengo kostera.

## Juantxo HARATEGIA

Telfono: 83 18 37



## Eugenio Garmendia

KONTSEILARITZA  
Telfno: 83 44 66

## SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: — Arrain zopa  
— Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29  
Telfno: 83 00 05  
Telfno: 13 25 32



Inoiz baino  
jende  
gehialgo  
dabil  
Musika  
Eskolan

## Atun harrapaketa inguruko argazkiak Salatxon

Urriaren 25ean hast  
eta San Nikolas festa  
bezperararte, atun  
harrapeketaren  
inguruko argazkiak  
izango dira ikusgai  
Salatxo tabernan.

Guztira, koloretan  
ateratako hamalau  
argazki izango dira,  
eta egilea Andrey  
Urzelaieta gazte  
irundarra da.

Bestalde, pasa den  
hilean tabernaren  
bigarren urtebetetzea  
zela-eta, Biarritzetik  
etorritako talde bat  
aritu zen eta ingu-  
ruko jende asko  
etorri zen ospakizu-  
nera.

## Euskal Herriko itzuliaren zorra

Euskal Herriko  
Txirrindulari Itzuliak  
eragindako zorra  
731.510 PTAKoa izan  
zen eta zor hori  
Udalak ordaindu  
zuen. Leundak  
zinegotziak ezezkoa  
eman zion zorra  
Udalak ordaintzeari,  
procedura ez zelako  
behar bezala bete.

## Ia 250 lagun matrikulatuta Musika Eskolan

Aurten inoiz baino ikasle gehiago matrikulatu  
da Musika Eskolan. Aurten lehen aldiz eskain-  
tzen diren dantzako klaseak-eta kontuan har-  
tuta, 248 ikasle ditu Musika Eskolak. Irakas-  
leak, berriz, 14 dira guztira.

Ikasleen banaketa, asignaturaz asignatura-  
hau da: 168 ikasle ari dira tailer eta instrumen-  
tua ikasten; 56 dantzako eskolak hartzen; 14  
eskusoinu orkestrari eta 10 Salatxo txikin.  
Kontuan izan behar da, gainera, kopuru haue-  
tan ez direla sartzen ez Harribil taldeko kideak  
eta ez Salatxo abesbatzakoak.

Euskaltegian, aldiz, ia baino jende gutxiago  
dabil aurten. Hiru talde sortu dira: euskaltun-  
tze bi eta EGA mailako bat. Ugariena EGA  
mailakoa da, 17 lagun baitabilitza hori.

Euskara Batzardeak Euskaraz Gazte progra-  
maren barruan antolatu duen Akatsak Zuzen-  
duz ikastaroan, bestalde, 14 lagun ari dira.  
Joxe Ramon Zubimendi irakaslearekin.

Bukatzeko, esan dezagun Ostargi taldeak  
antolatutako eskulanetako ikastaroek ere oso  
harrera ona izan dutela eta 100dik gora lagun  
ari direla ikasten 6 ikastaro desberdinatetan.

## URBAZTER ASEGURUA K

San Nikolas kalea, 6  
Tel.-Fax: 13 33 14

- Transferentziak
- Lizentziak
- Eskrituroak
- Penalak
- Errenta Aitorpenak
- Bidaia, e.a.

## GABON

Plater konbinatuak,  
pintxoak eta txokolatadak

Telefona: 83 06 09

## ANARR /

Kreola egiteko eta denbora librerako  
arropa eta ekipamenduak  
telfnoa: 83 21 60

## G O I Z E K O

\* KAFETEGIA  
\* IZOZKIAK  
\* CROISSANTEGIA

pasteleriko  
enkarguak  
hartzen dira

Alta Lerkundi, 33  
Telefona: 83 28 55

**Xabier Lizasok  
kalera ateria du  
pianoa**

Europako beste herrialdetan askotan ikusten omen dira kalean egindako kontzertuak. Ideia hau hartuta, Xabier ere animatu egin da eta. Sole, bere emaztearen laguntzaz, proposamena zabaldu die zenbait kultura arduradunet.

Guztira hamar kontzertu eman ditu Gipuzkoan, Nafarroan, Almerian eta Madrilen. Nahiz eta piska bat keztatua egon, aldez aurrelik, jendearen erantzuna nolakoa izango ote zen pentsatuz, azkenean, oso pozik dago Xabier, ixiltsun eta arreta guztiarekin musika entzuten egon delako.

Programa samurra aukeratu du (Alta Donostia, Chopin, Schubert, Liszt) ahalik eta entzunle gehien erakartzeko eta DV eta Herri Irratiak publizitatearen babesak eskaini diote.

**ALUYOLA, S.L.**

LEIHOAK, ATEAK, TERRAZAK,  
BAINU MANPARAK.

**P.V.C., ALUMINIOA,  
POLIURETANOA**

**KOLORE AUKERA UGARIA**

Fatima Arzola Ibarra

Jalzkibel plaza, 8 LASARTE

Telefonia: 36 22 77

LABek  
antolatutako  
itxialdia  
hamalau  
lagunek  
hartu zuten  
parte



## **LABek antolatutako itxialdia udaletxean**

Urriaren 18tik, ostirala, 20ra bitartean, igandeak, hamalau lagun egon ziren herriko udaletxean itxita. LAB sindikatuak antolatutako itxialdia izan zen, *Euskal Presoak Euskoal Herria* lemaapean.

Larunbata eta igande bitartean hiru enkartelada egin zituzten herrian barrena. Itxildiari amalera emateko, igandeak, eguerdiko hamabi eta erdietan, Zarautzen izan zen eskualdeko (Urola-Kosta) manifestazioa joan ziren.

Bestalde, eta aipatutako itxialdiko lemape berarekin, *Euskal Presoak Euskoal Herria*, Orioko Herri Batasunak ostiralero, gaueko zortzietaan hasita, konzentrazioak egiten ditu herriko plazan.

**San Martin festak  
Ortzaiza auzoan**

Azaroaren 9tik 17ra ospatuko dira festak.

Festa programa:  
Azaroak 9: goizeko 6etan, ollasko biltzea. Gauean, Etzakit taldea.

Azaroak 10: goizeko 10etan meza; ondoren, haur jolasak eta Gorritiren saioa bere animallekin. Arratsaldean, txokolatada. Gero, Epelde anaiak. Eguna osoan plater tiroketa txapelketa. Azaroak 16: arratsaldean, trainerilak. Gauean, P. Etxeberria, J. Lizaso, J. Agirre eta Mañukorta bertsolariak. Gai jartzainen Xabier Sukia. Ondoren, Trakets taldea.

Azaroak 17: goizean meza, eta ondoren, baskarria. Gauean Epelde anaiak.

**B. Lertxundiren  
azken diskoa**

Urriaren 26an Bilboko Arriaga antzokian Benitok 'Hitaz oreit' bere azken diskoa aurkeztu zuen.



Balearen kalea, 2. tlfnoa: 83 38 04

**A LTXERRI**  
Jatetxea  
Telefonia: 83 07 62





Euskaltegia,  
KARKARA eta  
liburutegia eta  
beste hainbat  
talde lanean ari  
dira dagoeneko  
Kultur-Etxean

## Esandakoak

### ANTONIO CAMPOS

"Ikastoletan maizatzen  
erakusten da, eta ez  
garrotaizen; eta  
maitasuna gorrotoa eta  
bortizkeriaren kontrako  
da"

(Egin, 96-08-29)

### IBON URBIETA

"Oriotic beste  
norabattera joatez  
geroan biziteera, hiru  
bediintza bete beharko  
lituzke herriak;  
kostaldean egotea, eta  
txidia eta arrantzalea  
izatea"

(Diario Vasco, 96ko  
iraila)

### JOSE MARI REKONDO

"Oso Manuel Lasarte  
zalea naiz, nire iritziz  
bera da bizirik dagoen  
bertsolaririk ederreña.  
Lasartek duen euskera  
ez dut uste beste inork  
duenik Euskal Herrian.  
Horrekin bat ikasi  
dalekeela euskera!"

(Brutxulo, 96-08-09)

## Martxan jartzen ari da kultur etxe berria

Urriaren erdi aldera ireki zen kultur etxeko biblioteca berria. Ordurako, herriko hainbat talde hasita zeuden bertako gelak erabiltzen. KARKARA aldizkariaren ale hau ere kultur etxeko lokal berrian egina dago eta Udal Euskaltegiak ere bertan hasi du ikasturtea.

Badirudi Orioko Kultur Ebsea izango dela izen ofiziala oraingoz. Udalean ez baitira ados jarri beste izen bat erabakitzeko.

Udal Bibliotekak hartzen du kultur etxearen azken pisua, oso-osorik. Egurrezko estalkia du eta horrek goxotu egiten du bertako giroa. Bi gela ditu: bat haurrentzat eta bestea helduentzat eta bi gela horietan 9.500etik gora liburu daude.

Miren Andueza bibliotekaria tolosarra da eta adierazi digu liburutegia irekita dagoela adin guztietako oriotarrentzat. Hau da bibliotekaren ordutegia: astelaren ostirala, 16:30etik 20:00etara.

### IL GELATO

Etxeko helatuak eta  
kruasanak

San Nikolas, 17 TFNOA 131747

### GURE TXOKO

TABERNIA

ARITZAGA KALEA


### BORDATXO

- Bokadilloak
- Marisko razio bereziak

13 30 14

## ERRUSTA

Kriston  
bokadillok!!



## KoastA

Lasaitasuna eta giro ona

**Joseba Manterola  
ez zuen Makalu  
igotzea lortu**

Eguraldi txarra zela Joseba Manterola eta bere taldekoak ezin izan ziren 8.500 metro inguru dituen Makaluren tontorre-raino igo.

Abuztuaren 10ean hemendik irten eta irailaren erdiakdian 7.000 metroraino igo ziren, baina eguraldi txarragatik igoera bertan behera utzi eta urriaren 15erako Katmandun ziren.

**Eder Etxeberria  
arraun-selekcioan**

Bigarren urtea da dela jasotzen duena neska honek. Euskadiko eta Spainiako txapelduna da skullen eta orain arte malarik altuenera iritsi den Orioko kirolari emakumezkooa. Orain dela lau urte hasi zen eta marka guztia hausteko bidea darama.

Saskibaloiko  
neska taldea  
Joaquin  
Aranburu  
prestatza-  
tearekin



## **Saskibaloiko taldeak Iehian hasi dira**

Bi talde ari dira herrian saskibaloian jokatzen. Baia emakumezkoena eta, bestea, gizonzkoena. Neskek Arraun Taldearen Izenarekin jokatzen dute eta, mutilak. Oriogi okindegia babesten ditu.

Joaquin Aranburu, Eladio Zubizarreta eta Angel del Hoyo dira bi talde hauen prestaketa arduratzentzen direnak. Urte dexente dabilta lan honetan eta gustora daude orain arte lortutako emaitzekin.

Iaz, mutilek, denboraldi nahiko txukuna egin zuten eta irabazitako partiduak galdu-

takoak baino gehiago izan ziren. Aurten, hori hobetzeko esperantza handia omen dute eta ilusio eta gogozari dira entrenatzen hori lortzearen.

Neskak, berriz, bostgarren postuan geratu ziren sailkapenean joan den urtean. Aurten taldea osatzea lortu badute ere, jende gutxiengi dute oraindik. Beraz, norbaltek jokatu nahiko balu, gustora hartuko luke. Entrenamendua asteazken eta ostiraletan egiten dituzte. Zaragueta Eskolan, arratsaldeko zapietan. Han azaltzea besterik ez duzue.

**Autoak aukera  
onean**

**AIA ORIO**

Telefono: 19 04 38



**ORTZAIZA**

**JATETXEA**

- \* Bataioak      \* Despedidak
- \* Jaunartzeak      \* Ezkontzak

Tfnoa: 83 32 51 / 83 30 46. Ortzaika

**KOLON TXIKI**

- PINTXOAK • KAXUELITAK
- EGUNEROKO MENUA

# 83 00 44 / 13 20 26

Herriko Plaza 4

**K2**

## Erremonte- txapelketa bikoteka

Datorren azaroan hasiko da lehen mailako erremonte- txapelketa bikoteka. Bertan, Urretabizkaiako analetako batek parte hartuko du, biak batera ezin dutelako jokatu. Beraien esan-dakoaren arabera, seguruenik Jesus Marik, bietan gazteen- na arituko emen da.

## Arraunlarien arteko bizikleta desafioa

Usurbilen Pilotar Joko Zaharren eguna antolatu dute azaroaren lehenengo bi egunetan. Larunbatean, eguerdiko ordubatean, arraunlarien arteko bizikleta desafioa izango da. Oriok, Ur-Kirolakek, Zumaiak eta Donibaneko arraunlariak hortuko dute parte.

Horrez gain herri kirolak, pelota partiduak eta dantzaia izango dira.



Olatu txikiek  
nekarriak dira  
**Mikelentzat,**  
handiak baino  
teknika hobea  
monperatzea  
eskatzan dute,  
gainera

## Emaitza desberdinak futbol taldeek

Mikel Santamariak zuzentzen dituen juberriak bikain hasi dira eta, sei partiduren ondoren, sailkapeneke hirugarren lekuau daude. Azken lau neurketak irabazi dituzte eta partidu bat berdindu eta beste bat galdu dute. Golegle nagusiak Joseba Lertxundi eta Jose Mari Alguacil dira hiruna golekin.

Kadeteen denboraldi hasiera ere itxurosoa izan da. Selgarrenak dira eta hiru neurketa irabazi dituzte. Golegle nagusia Iker Torre da, lau gol sartu baititu.

Preferenteko taldea izan da hasiera kaxkarrena izan duena. Erditik behera dago sailkapenean eta oraindik ez dugu ikusi taldearen garalpenik. Antilla zelaian, Jaime Coladok, golegile nagusiak, hiru gol sartu ditu.

# Mikel Agote Gipuzkoako surf txapelduna

Joan den maiatzean Donostialako Zurriola hondartzan izan zen Gipuzkoako Surf txapelketa, eta bertan, Mikel Agotek lehen postua lortu zuen oraindik hemezortzi urte bete ez dutenen kategorian.

Euskadiko Surf txapelketan, urriaren 12 eta 13an Getarian izan zena, hirugarren postua lortu zien.

Datorren urtean open kategorian, nagusienean, sartuko da eta ilusio gaztiak ditu ondo baino hobeto aritzeko.

Hainbat bat lagun dabilta, Mikelekin batera, Orion surfcan eta Klub bat eratzeko ideia ere badute (Itzast nahi dutenek laguntzeko, federazioko fitxa eta seguruak izateko...).

Aurtengo San Nikolasetan txapelketa antolatu nahi dute eta, herriko jendeak parte hartu dezak, deia zabaltzeko eskatu digu. Beraz, badakizue surfero guztiek, animatu.



Gure  
herriko  
garagardoa

**iTZiAR**  
Kirolak

83 31 03

HARAGIA GUSTORA JAN NAHI  
BADUZU EROS EZAZU...

**Kepa Loidi**  
harategia urdaitegian

Pelotari, 1 Tfnoa 83 25 65

Iñaki Garate

Aseguru-agentea

Eusko Gudari, 14 (atzek.)-3.

C C L  
CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

**Aseguruak**

Telefona: 13 46 07

# 'Udal kirodegia herritarren osasunarentzat komenigarria da'

**Jeronimo Oriolarrar da, hamabi urte daramatzatza Zarautzen biziñen, eta zaletasuna triatloia egitea du. Zarauzko kirodegian lan egiten du eta, bere ustetan Orion ere kirodegia beharrezkoa da.**

## Nola hasi zinen triatloian?

Oso bitxia da. Hemen, Zarautzen, urtero Espainiako txapelketa antolatzen da, eta, ikusterakoan inbidea sortu zitzaidan. Ez zitzaidan zaila iruditu nire burua prestatzea horretarako eta, txapelketan probatzea erabaki nuen.

## Ez al da erokeria triatloia?

Hori jende askok esaten digu, erotuta gaudela, eta hau oso gogorra dela... Agian, gogorra izan daiteke, baina, erokeria piskat izan behar da norberartustatzen zaien kirola egiteko.

## Jende asko aritzen al da triatloian!

Hemen Zarautzen urtetik urteria jende gehiago sartzen ari da kirol honetan. Ingruan egiten diren txapelketen ondorioz, triatloia gero eta ezagunagoa egiten ari da eta jendea animatu egiten da. Bestalde, kirol hau dela

eta, leku diferente asko ezaugzeko aukera izan dut.

Herri txikietan jarraitzaile askoz ere gehiago egoten da, askoz gehiago parte hartzen du, gañera.

## Triatloiaren hiru probatik, zein duzu gustokoena?

Errazena, egia esan, igeri egitea da niretzat, bizitza guztia igeri egiten aritu naiz eta, logikoa den bezala, oso gustora eta erraz egiten dut. Baina, bat aukeratzekotan, ba... ez nukte jakingo zein esan.

## Eta hiruretatik zein da gogorrena?

Denak dira gogorrak, danak emanda joaten baitzara. Frogak ordena berberean egiten dira beti eta, izatekoan azkenekoa, hau da, korrika egitea gogorrena dela esango nuke. Azkenerako oso justu zoaz eta bukatzeko desiratzen zuude, benetan neke gainditu egin behar duzu.

## Ze lan egiten duzu kirodegian?

Dagoeneko sei urte daramatzat kirodegian, lehen Usurbilen eta orain Zarautzen. Batetik, igeriketako monitorena naiz, eta umeekin eta helduekin aritzen naiz. Bestalde, gimnasia ere egiten dut emakumezkoekin, bost talde ditut, guztira ia 70 lagun.

## Beharrezko ikusten al duzu Oriok Kirodegia izatea?

Bai. Dagoeneko probintziako ia herri guztiak kirodegia dago, eta nahiz eta Orion gimnasio partikularra eta udaran kanpinean plazan izan, ez da nahikoa urte guztian zehar lana egin nahi duen jendearentzat. Gainera, herriak probezia ate rako lieke. Batetik, beste herrietara joaten den jende dagoelako; eta, bestetik, kirola egin nahi duen jende asko dagoelako, eta bárda, kanpora joan nahi edo ezin duena.

Bestalde, garbi dago, udal kirodegia herritarren osasunerako komenigarria dela.



"Triatloia egiteagatik jende askok esaten du erotuta gaudela. Erokeria piska bat izan behar da norberari gustatzen zaien kirola egiteko."

830089

OPITZ

Horma zabaleko oinetakoak  
Gizon eta emakumeentzako

**ZASS**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA  
MIXTOA  
SOLARIUMA  
PERFUMERIA  
San Nikolas, 2 Tfnoa: 83 31 70

KarKara

# 18 hilabete hauetan...



AINGERU ANDRES

HBK ZINEGOTZIA

Aurki beteko da urte eta erdi legealdi hau tripartitoaren (PNV-EA-PSOE) agindupean hasi zenetik. Gure ustex, nahikoan denbora bada egindakoaren eta egiten ari direnari buruzko lehen balorazioa egiteko.

Esan beharra dago, tripartitoa osatzarekoan, legealdi honetarako ez zu-tela inongo programarik aurkeztu eta, denborak garbi erakutsi du, heraien helburua ez dela herriaren interesak aurrera eramatea, baizik eta egintea eskaintzen duena beraien artean banatzea, eta, horretarako, HB erabat bantztertu dute.

Baldintza hauetan oinarritutako Udal batek ezin dezake ondorio onik ekarri eta, horrela, gaur egun Udalaren dinamika erabat kaxkarra dela esan beharra daukagu. Tripartitoak ez du funtzionatzen, PNV bere aldetik dabil nahi guztiak duen eginaz, EA alderdi honen menpe dago eta PSOEko zinegotzia, berriz, beste monigote bat dugu koadro xelebre honetan.

Udal honen efikazia ikustaratzeko asmoz adibide batzuk jarriko ditugu:

— **Ingurugiroa:** ia 18 hilabetean, lau bilera besterik ez ditugu egin. Ez dago inongo plangintzarik eta egiteko asmo-rik ere ez, eta, badirudi, batzorde honen buru den EAko zinegotziarentzat

arlo honek ez duela inongo garantziarik.

— **Euskara:** benetan aipatzeko da PNVk hauteskunde kanpainan ateratako programan zioen esaldietako bat: Orioko herrian euskalhunten lanetan ari den edo aritu nahi duen edonork guregan bilatuko du lagunizarikonea. Udaleko barne idatziek ia denak gaztelaniaz egiten dira. Aktei buruz zer esanik ez dago, denak gaztelaniaz erredaktatzen dira, eta, aipatzeko da 95eko aktarrik ez daukaguia euskaraz, eta 96koak oso gutxi direla euskaratutakoak. Batzuen interes eta borondate ezagatik, gure hizkuntza atzera geratzen ari da Orioko Udalean.

— **Tasak:** Udalak, bere gestio txarra dela-eta, urarekin sortzen den galera herriarmoi tasak igoaz kompondu nahi du, eta ez da salatu gestio oker hori zuzentzen.

— **Hirigintza:** Iur ez urbanizagarrietan errematen ari diren politika benetan salatzeko da. Inongo plangintzarik onartu gabe ibost urte daramagu zaino obra balmienak ematen ari dira.

— **Industriagunea:** ikusirk Motondorekin gertatutakoak, gure asmoa beste irtenbide batzuk aztertzea baten eta bada ere, hauetek (PNV, EA, PSOE) ez dituzte premiak kontutan hartzen, bai-zik eta beraien interes propio eta politikoak direla eta Motondorekin jarraitzen dute azpijokotan. Helburu bakarra Motondok duen aberastasuna ahalik eta gehien suntsitzea da.

Leku falta dela eta, gai asko aipatu gabe uzten baditugu ere. (polikiroldegia, hondartzagunea, festa batzordea, gizarte ongizate batzordea, aurrekontua...) aurrerantzean kalerajuko ditugun aldizkarietan sakonki aziertuko ditugu, gure ustez herriarrek Udalean gertatzen den guztiaren berri izan behar baituzue.

Iritzi artikulu honen bitarte, jendeari hausnarketa egin dezan eskatuko genioke, baita ere, Udalak orain artean egin duen lanari buruz.

Bukatzeko, ezin ahaztu gure preso politikoek daramaten borroka, gutxieneko eskubideak lortu ahal izateko.

Euskal Presoak Euskal Herria!!

**ANTONIO ALONSO, S.L.**

- MOTA GUZTIETAKO ZERAMIKAK
- SUKALDE EKONOMIKOAK

Denda Telefaxa: 13 10 88  
Almazena Tfnoa: 13 25 33

**DORRONSORO**  
**JANARIDENDA**

Abeslari 3 ☎ 83 09 37

**EROSLE**  
**AUTOZERBITZUA**



## San Martin jaiak laister izango ditugu Urdaneta auzoan

Azaroaren 8tik 12ra bitartean San Martin jaiak ospatuko dira Urdaneta auzoan. Eta, azaroaren 3an Zaharren Eguna izango da. Goizeko 11etako mezaren ostean, pelotako hiru finalak jokatuko dira, banakakoa, haurrena eta helduena. Ondoren Egaña eta Lizaso bertsolartak eta Laja eta Landakanda trikitilariak arituko dira.

San Martin festetako ekitaldi nagustak honako hauek izango dira: Azaroaren 8an, Musufruktaldeak musikaz gozatuko du gama. Larumbatean, arratsaldean haur-jolasak eta gaueko hamar t'erdietatik aurrera gaupasa Zabaleta eta Imanol eta Etxabe anaiek. Igandean, Meza Nagusia golzekeko 11etan eta, ondoren pelota finalak eta herri kimlak. Gauean, erromeria Etxabe anaiek. Azaroaren 11n, San Martin Eguna, goizeko mezaren ostean, pala finalak eta Irontza eta txinga frogak izango dira. Gauean Imuntzo eta Beloki trikitilariek Urdanetako auzoa animatuko dute. Azaroaren 12an, Olasko Biltze eguna da eta gauean jango dituzte egunear zehar bildutako ollaskoak. Afalondoan, erromeria Laja eta Landakandak eskainiko dute.

Festari amaiera emateko, ohizko Putata-Dantza Txapelketa izango da.

## ALUSTIZA AUTOBUSAK

Autobus litera eta 16, 36 eta 56 plazakoak  
Bidaia edo ezkontzeta edo sagardotegira joateko

☎ 13 28 93 / 83 08 80 mugikorra: 908-77 37 67

### Edadetutxenak dituxten familiei laguntzak

Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuak "Sendian" izeneko egitasmoa martxan jarria du, ezintasunen bat duen edadetutxen batekin bizi diren familiei laguntza emateko. Era berean, familiarteko desorekak ez gertatzea eta elkorbizitza normaltasunean eramatea da egitasmoaren helburua.

Zaintzaileak hezitzeko jardunaldiak antolatuko dira; besteak beste, osasun, lege eta giza arloak aztertuko dira; laguntza psikologikoa, borondatezko lana, laguntza tekniko eta ekonomikoak, autolaguntzarako taldeak, bultzagarri fiskalak... +

Informazio gehiago nahi baduzue, Udaletxeko Gizarte Laguntzailearenengana joan besterik ez duzue.

### Gimnasia eta judoko ikastaroak

Udalak antolatuta eta Orioko Indar-Gimnuk zuzenduta, honako ikastaroak izango dira: Gimnasta, hirugarren adinekoentzat; Aerobic, 15 urtetik gorakoentzat; eta, Gin-Jazz eta Judo, 4tik 12 urte bitarte koentzat.

Azaroaren 25ean nahi dutenentzat frogak bat egingo da.

## SEGA

ezkontzak, bataioak,  
jaunartzeak

Tfnoa: 83 07 16 Erreka auzoa

89



Anglosaxoiek  
ospatzen duten  
Halloween  
festaren antzekoa  
agiten da oraindik  
orain Aiako  
zenbait auzo eta  
baserritan

# Santu Guztien bezpera

## Aspaldiko ohiturak gogoratuz

Erreportaje horien egilea eskoziarra da, jaiotzera eta gure artean daraman denboran, gure hizkuntza ikasteaz aparte, gure ohiturak ere ezagutu ditu. Eskozian berak bizi izandako batekin duen antzagatik, atenzioa ikaragarri deitu zion bat kontatzen digu: Halloween festa. Santu Guztien bezperan ospatzen dena. Felisa Manterola, Ana Azkue eta Joakin Iruretagoienarekin hitz egin du, ahalik eta informazio zuzenena izateko, eta euskara ederrean eskeintzen digu hemen.

### PAT COWIE GORDON

Kalabazak biltzeako garai iritsi zaigu: garibaran gorde, neguan zopa goxoa egiteko. Bai hortxe!... edo beharbada ez! Sorgin gaiztoak eta arima galduak uxatzeko ere beste edozein gauza baino era-

### ginkorragoak baitira.

Antzinan, gure inguru hauetan, Santu Guztien Eguna (Domusantu) oraindik asmatua ez zegoenean, egun berezta ospatzen zuten gure arbasoek. Iraila edo urriaren bukaeran, -iturriak ez dato bat, - azken uztak

bilduta zeudela eta egunak iluntzen hasita zirela, arima galduak eta sorgin gaiztoak alde batetik bestera omen zebiltzan. Negua pasatzeko txoko baten bila akase? Horren kontra egiteko eta etxeak babesteko: kalabaza!

Baserrietako norbait ar-

duratzen zen horretaz: kalabazaren txapela moztu, batruko hustu, begientzat bi zulo eta ahozulo bat ebaki, kandela barruan ipini eta piztu, berriz ere txapela jantzi eta prest! Kalabaza beldurra baino heldurgarriagoa benetan.

Aia eta Orioko toki batzuetan, baseriaren atean uzten zen, kumpoaldean, horzebillen sorginari susto ederra emateko.

Laurgainen, ordea, bertako gazteek basora eramaten zituzten kalabazak ilunbarrean, sasien artean utzi pasatzen zena ikusteko eta korrika etxera.

Aiako auzo batzuetan, ja-

torizko helburu hori galdu da dirudienez, baina, kalabaza-mamua hori egiteko ohitura ez, ordea, askotan geratzen den moduan.

#### NESKAK BILDURTZEKO

Igandetako trikitixa festatik zetozene neska gazteei susto ederra emateko erabilten zuten auzokide gazteek: bide bazterrean aurpegigatzoa duen kalabaza utzi, kandela piztu eta ondoan izkutatuta neskeen zain geratzen omen zireni multilak. Neska gajoak mendi bideko iluntasunean halako mamua derrepente ikustea ere! Susto galanta haiek hartzen zuten.

#### EKOZIAN ERE ANTZEKO GAUZA

Nire herrian ere, Eskozian, antzeko ohitura zegoen eta gaur egun ere ospatzen da. Etxez-eltze joaten dira haurrak kandela duen kalabaza edo argia eskuekin helduta, goxoki, opil edo dirua eska-

tzen. Etxeko abihoa emanen zale, gainera: zerbait ona eman, bestela, zoritzarreko zerbait opa egingo dieten meatxupean. Haurrak zehiak sorginez edo mamuz mozorrotzen dira askotan, ondoren antolatzen den festa josteko. Orduan, bildutako uztroz disfrutatzen dute, eta, kalabaza eta mozo-roaren laguntzaz, gaitzaok uxatu.

Ohitura hori hemen, eta beste toki askotan ere. San Juan bezperetan ospatzen denaren antzekoa da.

Zahar, oso zaharrak direnez, urteak pasa ahaia aldatzen joan dira. Jatorrizko zergatia batzuetan ahaztu egin da, aldatu edota elizaren ospakizunetan toki bat egin zaio.

Zuetako norbaitek, aksaso, zerbait entzunda izango duzue horretaz. Ba, ez eza-zue gorde zuentzat, mese-dez, jatorrizko ohiturak de-nen altxorrik baitira.

Balarriak erne ditugut!



#### Aiako leihoa

#### Elkartasuna

Eguraldi tristea: xirimiri eta lainoa. Umorea ere eguraldia bezalakoa. Egunkari desberdinenei begirada bat eman diet eta badirudi zertikusirik ez duten lekuet buruz ari direla, baina denak gure turretan gertaizen diren gauzaz ari dira.

Egunkari batzuk aipatzen du 20.000 lagunek parte hartu zutela ditu manifestazio batean: bestek, berriz, 100.000. Batentzat Errealak ondo jokatu zuen, eta bestearentzat Athletic-ek ez dakit zer egin zuen.

Ikuspuntu desberdinak irakurtzea interesgarria da, baina askotan, ezer argitu beharrean baztarrak nahastu besterik ez dira egiten bide bakarra, norberarena, ikusi nahi denean.

Norberak dituen arazo eta kezkekin ere gauza berbera-gertatzen da. Baliteke inoiz balno elkarre gehiago egotea elkar laguntzeko: droga eta HIE-Saren aurka, enplegua sustatzeko programak eta ikastaroak, hirugarren munduari laguntzeko diru eskaria... baina nire iritziz horietako eikarte eta ekintza gehienak orokorrean oso urrutitik ikus-ten ditugu. Tarteka, beharbada, hogei duroko eman eta gure kontzientziarekin pakeak egiten ditugu hurrengo bat arte, pentsatuz: guk ere nahikoa arazo ditugula gure etxeen beste-enak konpontzen hasteko, gehienbat beste horiek gauza abstraktu moduan ikusten ditugulako.

Ordenadoreen zibilizazio honetan gaudenok informazio izugarri jasotzen dugu egunean zehar, eta askotan datu beldurgarriena ere oso gaine-tik pasatzen ditugu, gehiegiz ukitu gabe eta gutxi pentsatuz, bestela eguna kezkatuta pasako du-gulako.

Gure bihotza benetan hunkitzeko, zoritzarrez, notiziak oso txarra izan behar du. Baina une gogor horietan askok bere arazo pertsonalak alde batera uzten dituzte, eskuak luzatu lanerako, bihotza zabaldut eta. Ingurura begiratuz une batz sentitu dezakete komunikabideek eta ordenadoreek isladatu ezin duten zurrara: benetako elkar tasuna eta horrek norberarengan sortarazten duen pakea. Eta orduan, tristuraren erdian eta laion artean eguzkiaren errainu epelak agertuz joaten dira.



## Udalak antolatutako ibilaldi atsegina Kantabria aldean

Urriaren 23an zenbait herritar Kantabria aldera abiatu ziren Udalak antolatu zuen bidaian parte hartuz. Lehenabizi Torrelavegan izan ziren eta ganadu azoka ikusteko aukera izan zuten. Handik Santillana del Mar herrira joan ziren eta bertan bozkari goxoa dastatu zuten. Bazkalondoan, berriz, Santander hiriburua ezagutu zuten.

Herritarrek primerako eguna pasa zuten eta ez zuten animazioa faltan izan. Astigarrako Susanak eskusoniu eraman baitzuen.

### Idi probak azaroan

Azaroaren 8, 9 eta 10ean idi probak izango dira. Lehenengo egunean Erreista, Frantxilla eta Arzadun arituko dira lehian gaueko 10etatik aurrera. Bigarren egunean, eta ordu berean, Iketza, Telleria eta Artadielde izango dira. Eta, azken egunean, gaueko 9etatik aurrera, Zurdo, Belarreta, Izeta eta Simon.


Irabazleak 250.000 pta., mantak eta udalaren Kopa jasoko ditu.

### Babes ofizialeko etxeak Andatza auzoan

Andatza auzoan, epe laburrean, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaz Sailak babes ofizialeko hogeita lau etxe egiteko asmoa du.

Udalak inkesta bat egingo du herritarren artean etxebizitzaz beharra nolakoa den czagutzeko eta Eusko Jaurlaritzak jarritako baldintzak nortzuk eta zenbatek betetzen dituzten jakiteko.

Udalak zera eskatzen du, inkesta gogo onez hartzea eta eskatzen diren datuak garbi adieraztea.



EZKONTZA, JAUNARTZE  
EDO BATAIOETARAKO  
LEKU APROPOSA

Bertako sagardoa eta  
etxeko postre bereziak

egin zure publizitatea

KarKara

☎ 83 15 27

aldizkarian

ARISTERRAZU

Jatetxea

San Pedro ☎ 83 45 21

KANUA

Festa ospatzeko kategoriko lekuak

☎ 83 43 22



Aldapen gora, Golkia Kalon, zakua bizkarrean eta Andu heituru

## Orioko apustu xelebreak

Jokoa ez omen da errenta, eta ez da izango, noski. Baino euskaldunon artean oso sustraituta dagoen ohitura da ellarren artean apustua egitea. Frontoian, deman, segan, estropadan..., lehia dagoenean trabesa egin ohi dugu; bailez...!, ezetz...! Izen omen da apustuan baserrria gaidutakorik ere. Azken urteotan zertxobait jaisten hasia da apusturako grina hori, bestela aurten goztiaren 7an, Kontxako bigarren estropadaren bezperan, Orion bueltaka ibili zen sanpedrotarra, "ehun mila pezeta Oriok bandera ezetz"; ez zen trabesa gauzatu gabe aterako herritik; baina horrela joan omen zen. Oriotarrok apustuak, batez ere, irailean egiten ditugu, estropadetan. Herriko zein arrauazalek ez du jokatu noizbait mila duroko bat Portaletasen, Orioaren alde, noski! Baino erreportaje honetan bestelako apustuak jaso ditugu, kirolarekin lotuak bai, baina kirolariak ez ziren norgelagokak, eta denak xelebre xamarrak.

### INAKI ITURAIN

Orio izan den apusturik famatuena bat Juan Jose Usandizaga, 'Itxasper Txikia'. Katximan eta gero Aldapen bizi izandako multizaharrak egindakoa izan zen. Orioko plazatik abiatuta Anduraino joan zen oinez, bizkarrean 60 kiloko zaku pentsua ferretxilloya) zera-mala, 65 urte bete zituen

egunean. Bere buruari egindako opari gisa, gorputzari nekatualdi ederra eta patrikari bost milako bar eman zion, 5.000 pta. horiek Mariano Atxega zenak galdu zituen, 'Aldek'.

Apustua igande eguerdi batetan egin zuten, sozledadean, mezetatik atera eta gero, Itxasper bete-betea

omen zegoen, eta Aldek tentatuta jokatu zuten. Itxasperk 1.000 pta. eta Aldek 1.000 duro. Apustua arratsalde hartan bertan gauzatu zen, lauretan. Itxasperk laguntzaile Aldapeko Anjel Arruti izan zuen, baina bidea erakusteko beste ezertarako ez, izan ere Itxasper zeharo makurtuta egin be-

har izan baltzuen bide osoa zakua ez erortzeko. Apustua horixe baitzen: ezetz igo Anduraino zakua hurrean utz-gabe, denborark gabe.

1968 inguruan izan zen, eta plazatik abiatu aurretik jendeak diru mordoxka jokatu zuen plazan, bailez eta ezetz.

Lagunen animoen artean



Anjel Arruti, apustu honen berri eman diguna, seguru omen zegoen Itxaspek Irabazi egingo zuela, izan ere, zerbaizti ekiten baldin bazion ezkerengatik ere amore ematen ez zuen horietakoak omen baitzen.

Andura allegatu zenean, hauetaraztua eta zakua lurrean uzteko esan bazioten ere, Itxaspe Anduko sukaldaraino sartuzten, beizpore!

Beste erronka batean, Itxaspe bezala, Martzelino Muniota ere sukaldaraino sartu zen, baina Martzelino zaldigainean. Hort Lizargate baserrian gertatu zen, San Martin jaletan, Manuel Lasautek liburu batean kontatzen duenez.

## HAMASEIGARRENEAN AIDANEZ

Itxasperen apustua Anjel Lertxundi 'Andu', idazle oriotarrak nobela batera eta gero zinera eraman zuen. Anduk, nire iritziz idatzi duen nobelarik onenearan, Hamaseigarrennean aidanez, protagonista apustuzale bat zen, eta Itxasperen apustuan zegoen oinarrituta pelikulako pasarte bat. Protagonistaren heriotza Euskal Herrian asko zabaldu zen gertaera batean zegoen oinarrituta, Urtain bocealaria zenaren aldarigatua: taberna bateko mostadorearen azplan jarri, etzanda, eta besté batek salto egiten zion tripa gainera, hura aguantatu baitzit eta ezetz. Ez zuen aguantatatu,

hamaseigarrennean aidanez.

Gizon haren beste seme bat, Urtain famatuaren anaia, izan zen beste apustu sonatu baten protagonista, Orioko Daniel Sarasuarekin batera.

## DEMARRIAREKIN USURBILEN

Beste KARKARA batean kontaktu genuen Orioko frontoiko dema-plaza estreinatu herrian demarriarekin egin dako lehia.

Beste behin Orioko bost laguneko koadrilla Usurbilera joan zen, hango frontoian zegoen 4.000 kileko demarriari buelta ematera, atzezkoz aurrera jartzera. Orduarte ez omen zen izan koadrilarik, bost lagunekoa, Jakina, Ian hori egindakorik. Oriotik Martzelino Manzidor 'Olako', Inazio Sarasua, Jose Txanka, Jose Samastu eta beste norbait joan eta aurreko egunean Usurbilgo koadrilla batek mugitu ere egin gabeko harriari buelta osoa eman omen zioten. Indarra ez zuten txalupan bakarrik!

## TXOLARRA ELIZAKO ZIMITARIOAN PELOTAN

Pedro Joxe Maritxalar, goitizenez 'Txolarra', pelota-

ri bikaina zen eta abildadea ba omen zuen elizako plaza aldeko zimitarioan, ur bedinkatuaren onti parean botea eman eta, aurreko horman jota; pelota urontzian sartzeke. Aldiko humar xentimo jokatzen zion nahi zuen guztia. Ona ez omen zen pelotan bakarrik, arraunean ere bat. Oso indartsua zen eta behin Zarauzkotren gelotikiko andenean, hankageldian, apustua egin eta alde batetik bestera salto egin zuen.

Frontoian pelota partiduak era askotakoak antolatzen ziren, gehienetan esku, oraingo aldean asko jokatzen baitzen orduan. Pelotari onak kaskarrari eskubi edo ezker hutsez, tanto batzuk emanda, derrebeska, hanka azpiz... Bainak, frontoikoan artean, bitxietan bitxieta oralindik hil zaharra ez den Joakin Loidi 'Zekorra' zenak jokatutakoa da. Zahartzaroan Juan Carlos Itxauspe erremontistaren laguntzalle ibilitako Joakin, gaztetan, pelotari polita izan omen zen eta behin apustua jokatu zuen: partidua irabaztua baitzit asto bat sokatik eusten ziola. Berak Niño deitzen zion asto txiki bat zuen baratzeko lanetan laguntzen

ziona, eta partidura asto harekin agertu zen, partidua jokatu soka denbora guztian esku batean zuela eta irabazi egin zuen. Baina, horibai, Joakinak astoari oso soka luzea lotu zion, eta hau alde batetik bestera korrika ibili arren, Joakin ez zion enbarazu haundirik egin,

## BIZIKLETAN ESKURIK GABE XUAI GAINERAKO

Pio Beobate eta 'Agiña Txikia' Zubizkit abiatuta Xuai gainera igo ziren bizikletan, eskuak libre zeramatzaela, alegia eskutokian jarri gabe; belaunen gainean ere ezin zuten, ikustekoa izan zen apustu hau, goiko bueltan aginarrak bazterretik jo zuen eta aurrea hartu ere bat, baina Piek, zabalxeagotik hartuta, ez zuen abiada galdu eta lehentxeago iritsi zen gora.

Zubian, nola automobilik la batere ez zen ibiltzen, lasterketa asko jokatzen zen. Korrika, askotan kaltzontzi-llotan, eta baita korrikalaria eta txirrindulariaren artean ere, zubi bete zeinek lehenago egin. Berdinean hasita edo abantaila emanda. Txirrindulariak, abiatzeko txaloa jotzerakoan, oinak lurrean behar zituen. Beste apustu

bat izaten zen, bizikletakoa herrialdeko Zubimuturretik hasi eta oinezkoa Xuaiko baserritik, Orioko gainera zein lehenago ailegatu, oinezkoa bidetxidorretik, jakina.

#### DANIEL URTAINEN KONTRA ARRAUNEAN

Gaur egun 63 urte dituen Daniel Sarasuak eta Pako Ibar 'Urtainek' estropada jokatu zuten, batela banatan bi arraunean, zubitik Zubira zein lehenango, autopistako zubipetik herrikora. Apustua jokatu zutenean, 1975ean, Danielek 42 urte zituen, Urtain askoz gazteagoa zen eta Zumaiako txalupan ibilla, gainera; hala ere, hamar bat minutuko estropadan Danielek 25 bat segundu atera zizkion. Egun hartan boda bateko bazkaria zuten Zentralen, Toki Alai jatetxearen alegia, han joitzen ari zen orkestinak (Telosako Isidrorena) alirona jo zuen terrazatik Danielentzat eta zubian zegoen jende guztia rentzat. Izan ere, giroa berobero baitzegoen apustuaren inguruan eta sekulako jendetza bildu zen errio eritzera estropada hura ikustera.

Danielek berak ez zuen zentimetrok jokatu, bere alde jokatu zutenak Axuero eta Loretuxu tabernako Jose Mari zenaizanziren, orduko 5.000 pta. jokatu zituzten. Beste aldean, Urtainekin, Portuko morroia eta honen lagun 'Kaxkaxuri' izan ziren. Apustua egin Lontzoneko tabernan egin zuten eta ordu txikietan, jakina. Lusarrbeko harrijasotzailea omen zebilen koadrila batekin zorizi arroako harria jaso bailetz eta ezetz, eta Daniel ixantxetan sartu esanaz haitako inor ez zela gauza harri hura jasotzea, eta orduan Urtainek bailetz, jartzeko mila duro. Danielek atzera egin omen zuen eta orduan Urtainek gakletu Danieli eaztertan zekien, eta honek oriantarra zenez arraunean zekielo.

Orduan sortu zen handik astebetera gauzatu zen apustua. Orion izan den famatuetaakoa.

Batelak San Antonio eta Tubalbaporekoak ziren, berdinak eta Amilibiak egindakoak, baina haien egokitzan Urtainen alde Bixentiko eta ibili ziren Ortzakan, eta Danielena Ixarraneakoak. Diru asko jokatu omen zen jendearen artean ere.

#### KUKUARRIKO MARKA

Beste lehia sonatua Kukuarriko korrika joatea izan ohida. Horretan espezialista Bixentiko Elizondo genuen. Amañu arraunlararen aita. Askotan jokatu omen zuen eta beti irabazi, behinezik. Berrogeitalau urte zituela dexeente gazteagoa den Bernardo Txupetesen

kontra egin zuen apustua, honek Anjel Murri izan zuen preparatzaile. Bixentikok Alejandro Oliden 'Konpaxa'. Korrika-apustua zubitik Kukuarriko joan etorriza zen. Tentorrera Bixentiko aurretik iritsi zen, baina beherakoan gazteak aurre hartu zion eta bi minutu inguruko aldea atera, marka ordu erdian jarri. Bixentikok kontatu digunez, gerotik hainbat jende salatu omen da marka hori hausten, baina alferrik.

#### ORDU TXIKITAKO APUSTUAK

Apustu xelebre hauetako gehienak ordu txikietan jokatzen dira, taberna zuloeitan, eta askotan zurrutak lagundutu. Ollagorra diskoteca zabalik izan zen bitartean ere apustu xelebre askoak jokatu ziren. Ezagunena, seguru asko, Jose Inazio Urretabizkaia eta Pepe Miralessen artekoak, Jose Inazio eragindako 50 kiloko porlan zakua bizkarrera zeinek gehiagotan igo. Zakua ez dakit nondik atera zuten, baina handik gutxira pista erdian zuten. Jose Inazio igo, Pepe hasi, atzaparrarekin zakua hautsi eta pista guztia porlanez beteta bukatu zuten gau hartako lehia.

Lehen esan dugu apustu rako grina hori jaitsi egin dela azken urteotan, baina hil ez. Aurten, hilabete asko ez direla, jokatu zuten apustua J. I. Leundak eta J. M. Etxeberriak bitziketan zein lehenago iritsi Oriora, herrikik abiatu eta Asteasu, Andiazarrate eta Aiatik barrena. Apustua Etxeberriak irabazi zuen.

Irakurle, nik ere apustua jokatuko nizuke: bailetz KAR-KARAk diru laguntzaile asko lortu, biziak segitu eta, datoren urtean, Oriok Kontxan irabaziko duen banderaren berri eman oriotar guztiel, bailetz, mila duro!

## Garai batean telebistarik ez zenez norberak asmatzen zuen ikuskizuna. Horren ondorioz egiten zen horrenbeste apustu



Daniel Sarasuak  
arraunean abildad-  
denak eta trebezian  
indarrak baino  
gehialgo balio  
dezakeeta erakutsi  
zuen Urtainen  
kontrako estropedan

Karmele Aranburu

# “Oriok duen salitarekin gauza gehiago egin ditzake”

Karmele Orion jaio zen. Zazpi urte zituera, bere ahizpa zaharrenak garai hartako Batxiller ikasketak egin behar zituera eta. Donostiarra joan zen familia osoa. Aldaketa hura gogorra egin zitzaiola aitorru digu eta ‘non dago nire Orio’ esanez egiten omen zuen negar. Gero, Kazetaritza ikasketak egin zituen Iruñean eta Madrilera, eta, hamazazpi urte zituenean, Herri Irratian hasi zen lanean. Harrezkero bertan dabil albistegiak emanez.

## MIREN ETXEBERRIA

### Ze eragin izan zuen Oriotik Donostiarra etortzeak?

Hasiera batean oso gaitzki pasatu nuen. Orduan oso euskalduna nintzen, nahiz eta orain izugarri galdu dudan. Familia arteko giro batetik, bapatean, Amara Berriar etorri ginen. Jende guztia eraldaduna zen eta niretzat mundu erabat desberdina izan zen hura.

Gaur egun, oso guixi joaten naiz Oriora, baina, non goa naizen galdetzen didatenean, oriotarra naizela esaten dut. Betidanik izan dut nire Orio bihotzean.

### Ze aldaketa izan dira Orion zu eterri ezkeroztik?

Aldaketa positiboak... ezer gutxi. Adibidez, ekonomi mailan, Orio nahiko motela dago, hitz suabea erabiliztearen. Industrialdearen debaute sortu zenean, non egin behar... eta Motondon. Baina, ez al da beste lekurik?

Kultura arloan, potentzia, izugarria dago, eta nire ustez ez da behar bezala erabiltzen edo esplotatzten.

Orioko notiziak beti ber-

berak izaten dira: kanpina, arrauna, kirol portua eta ezer gutxi gehiago.

### Oriorekiko duzun lotura nolakoa da!

Gehienbat bihotzeko lotura da. Egia esan, Orion geriatzen denaz ez dut gehiegia jakiten. Baina, erre-dakziora Orioko berriren bat iristen denean, beti ere arre-ta gehiago jartzen dut.

### Duela urte pare bat KAR- KARAN idatzi zenuen Orioko kultur giroa eskasa zela. Artikuluak zenbait haserre sortu zuen. Berriro ere idatziko al zenuke artikulu berbera!

Bai, dudarik gabe. Hase-rettu zen jendeari ez diot arrazoitrik kendu nahi: ni ez baitnago Orion sortzen den gauza guztien jakinien gainean. Artikulua idatzi au-retik ezin nueri, eta gainera, ez nuen nahi. Orioko bi-ztza kulturala aztertu. Baina, nik mezu bat aprobetxatu nuen: Aupa Orio!, eta dudarik gabe, gainera; baina, ez da bakarrik arrauna-



ren inguruan egin behar, beste arlo guztietan ere bai.

Nik adierazi nahi nuen. Oriok duen potentzialarekin kulturan oso mugimendu gutxi zegoela. Nire osabak esaten duen bezala, Oriok duen salitarekin gauza gehiago egin ditzake.

### Herriko gaiak alde batera utziz, ze ezaugarri izan behar ditu kazetari batek?

Batetik, jakinminna. Hau da, egunero planteatzea gauzerik ikasi behar dudan. Eta ez, zertaz enteratu behar dudan notizia emateko.

Bestetik, sentibilitatea. Egunero izaten dira notizia txarrak: istripuak, atentatuak... hildakoak.

Bilbao istripua gerta-tu zenean amorratzen egon-

nintzen. Oporretan nengoen eta irratia entzuten ari nintzela, bazirudien lasterketa bat zela: ea nork ematen zi-tuen hildako gehiago. Personetaz artizirela ahaztu egin zen kazetari asko.

Eta, bukatzeako esango mukte, kazetari batek ez duela sekula bere burua importantzat izan behar.

### Komunikabideen monopo- lioa legez kontrolatu behar dela uste duzu!

Lege bidez zenbat eta gutxiago kontrolatu hobe. Monopolio hori oso arriskutsua da, eta legearen bidez kontrolatzea zaila da, tranpa berrehala asmatuko litzatekeelako. Azken finean Elkarre Anonimoak dira eta akzioak pertsona bakar baten Ize-

nean egon beharrean, bere familiakoentzat banatuko dituzke.

#### **PSOEk izan duen porrota kazetaririk gabe posible al litzateke!**

Ez, eta hori garbi dago. Bestalde, esan nahi dut, Ikerketa Kazetaritza famatu hori saldu zela, benetan hala izan gabe. Hau da, hasteran duadarik gabe ikerketa lana izan zen, euskal kazetari batzuak egina, gainera. Baino gero, komunikabide konkretu batetaz ari nai, informazioa jasotzen zuen, momentu konkretutan eta dosi txikitik kaleratua izan zena.

#### **Irratiak duen konpetentziarik handiena telebista al da!**

Ez, ezta pentsatu ere gainera. Informatua egon nahi duenak irratia enizten du, eta telebista ikusteko bizioa duenak ez da informazioa jaso nahi duelako izaten.

#### **Euskara eta komunikabideak.**

Ez gara engainatuko; cus-

karaz kaleratzen den informazioa askoz gutxiago irakurtzen da. Adibidez, Euskaldunon Egunkariak sekulako notizia kaleratuko balu, askosaz jettide gutxiagok izango luke horren berri. Gero eta euskaldun gehiago dago, baina euskaldun horiek ez dute euskal prentsa irakurtzen.

#### **Etorkizuna nola ikusten duzu?**

Hori beste gauza bat da. Gero eta euskal alfabetatu gehiago dago, eta aldaketen jende gehiago baitago. Esate baterako, Onkologikoan lan izugarria eta positiboa egiten ariden mediku bat dugu, Karrera.

#### **Oriotarrak komunikabideetan. Esate baterako Korta, Oteiza, Kanpos...**

Korta komunikabideetan asko ateratzen da; eta, adibidez erredakzio honetan galdeztzen den lehenengo gauza da: gaurkoan Kortak ze juramentu bota du? Bere perfila hori da, temperamentoa izugarria du, lehen esan dizu-

dan saluiren balio zerbaite gehiago.

Oteizak gobernuaren kontra botatakoak izugarriak izan dira. Oso berezia da.

Bi personala hauek nolabait azaldu dira, zerbaite komunikatzen dute. Mezu ona, txarra, komenigarria den ala ez, ez dakit; baina, mundu guztia daki oriotarrak direla. Esaten den bezala: nitaz jardun daitezela, nahiz eta txarrean izan.

Bestalde, batuetan pena ematen dit, Orion askosaz jende gehiago baitago. Esate baterako, Onkologikoan lan izugarria eta positiboa egiten ariden mediku bat dugu, Karrera.

Antonio Campos ezaguna da Ikastolen munduan, baina nire ustez jende askok ez

daki oriotarra dela. Ela gainera, horrela izan behar du.

#### **Aldatuko al zenuke irratia beste komunikabide batetik!**

Irratiak duen gauzarik interesgarrienetako azkartasuna da. Edozcin momentutan emari daiteke notizia bat. Telebistak behar duen prozesua oso geldoa da. Gainera, kamarak ez zaizkit gustatzen, ez dudalako pertsona ezaguna izan nahi.

Egunkariak gotzean kaleatzen diren erakundeak zahartuta daude, irratietan bezperan titularrak ematen baituzte.

#### **Bukatzeko, zerbaite gaineratu nahi duzu?**

Bai. Aupa Oriol, baina arlo guztietan.

## **Oso personala**

#### **- Zer eramango zenuke iria batera?**

Nire familia eta ura.

#### **- Operretarako leku bat?**

Leku paketsua.

#### **- Maniarik baduzu?**

Bai, esate baterako, azkazalak jaten ditut.

#### **- Superstiziorki?**

Ez.

#### **- Zure bertute bat?**

Hori bai dela galdera zaila.

#### **- Akatsik?**

Milaka.

#### **- Asko gustatu zaizun liburu bat?**

La sonrisa etrusca, behin balio gehiagoan irakurri dut.

#### **- Euskaraz irakurritako azken liburuak?**

B. Abxagaren Obabakoak irakurtzen hasi nintzen, baina, ez nuen bukatu. Ez nai euskal alfabetatua eta oso gogorra egin zitzaidan.

#### **- Idazle bat?**

Lopez Aranguren filosofoa.

#### **- Euskal abesiari bat?**

Benito Lertxundi asko gustatzen zait. Baino, agian. Imanol nahiago dut.

#### **- Kolore bat?**

Horia esan baharko nuke, ezta? Beno, gehien gustatzen zaidana, berdea da.

#### **- Ze notizi gustatuko litzaizuke ematea bihar goizko albistegian?**

Garbi daukat, pakea lortu dugula.



"Aupa Oriol bai, dudarik gabe gainera, baina, ez da arraunaren inguruan bakarrik egin behar, beste maila guztietan ere bai"

# Zine kartelerari gainbegirada

Txoko honetatik orioiarak zinematokietara bultzatzeko filme bereziren bat aipatu nahi nuke. Jakina denez, udazkenean zinematokietako sarreretako pertsonak zuhaitzpeetan eoritako hostoak bezainbeste dira; beraz, filme proposamen kopuruak zabaltzen dute. Kopuruak barrietatea suposatzen duela sinestarazt nahi badigute ere, badakigu kopuru hori, ez beste ezer dela.

Gaur egun zine aretoetan kalitatea aurkitzea kirol arriskutsua bilakatzen ar da. Lorpena izateko huts ugaritan erori behar delako; eta, huts bakotza seirehun eta berrogeitamar pezeta dira. Nire lagun batek zioen bezala: ez diago zapping egiterik, ezin da ordaindutako aprobetxatuz besaulkiaz lasai goza (bakotzak bere eran), eta gelditzen den irtenbide bakarra, kanpora, hotzera bueltatzea da.

Alegia, gaur filme ona salbuespina dela. Eta salbuespina aurkitzen aurreziak ez agortzeko, ia azia izan beharra dago, zeren "zine kritikari hauekin ez dago jakiterik".

Hala bada, zergatik jarraitzen duzu lerro hauekirakurten? Ba, zera gomendatuko dizut: arrazoi horrexegatik ez zaite sekula zinematokira



Joan.

*Independence Day*. Era-sker. *Trainspotting*, (izergatik ez dira ingeleratikitzultzen?). ala *Tiempo de matar* aipatu nahi nituen. Lehenengo biak ez dute irrazkinik behar edo merezi onezkeru; eta beste biak, bakotza bere moduan, motx sueriatze dira.

*Trainspotting* filme alternatiboa bailitzan saltzen da

eta egungo gazteetaz eta gazteenizako egirliko filme moda horretako beste produktu bat baino gehingo ez da, nahiz eta benetan interesgarri eta ikustekoak diren sekuentziak izan.

*Tiempo de matar* (Grisham-en nobela batean oinarrituta dagoela adierazteak nahiko beharko luke) filmeak melodrama sakon eta

hunkitzalea izan nahi du, gai nahiko estimagarria agertzen du: agertu besterik ez.

Filme bereziren bat aipatzekotan, Txoz.

Espainiarak zine ona eskaientzen ari zaizkigu azken urtetan, eta Txozhonen adibidea da. Ingrid Rubio zoragarrak eta Carlos Fuentes atsegüingarriagoak erakustaldi makala egiten dute, beraren arteko kimikartua dario eta orokorrean filmearen zutabea sendo eusten dute honen desorekak mantenduz.

Carlos Saura zuzendaria lezaguna batez ere Deprisa, Deprisa pelikulagatik amodiozko istorioa eta salaketa politikoa korapilitzen ditu. Filme latza, benetan gogorra lortzen du. Errealismo gordinez, Madrildar batzuk adibidetzat hartuta, faxismoa salatzen du; una xamurrak eta bortxazkoak lotzen.

Bertoluegi famatuaren filmeetako argazkilari ohiak Txozren estetika zaindu du, arreta eske datozkigun zenbait efektu interesgarri agerian utziaz.

Amalera okerrak filmea berez duen indar eta benekotasun hori beheratzen badute ere, merezi du lan honen bisitatxoan.

INGO FERNANDEZ

**IRADI**  
AHOLKULARITZA

&

**ZURICH**  
ASEGURUAK



Alta Lertxundi, 33 behe Tel./Fax 13 46 96

**ZUMINTZA**

- Fleapaindegia - Estetika  
- Depilazioa - Sauna

Tfnoa: 83 17 56

# ERROTA-ETXE

*Errota-Etxe baseria*

*Altxerritik berehala dago, Alara goazela errepidea-ren eskuin aldean. Gaur egun, lau anai-arreba bakarrik bizi dira Aramenditarren baserrian: Maria, Juan Jose, Joxe Mari eta Joxe.*

## IAKES GOIKOETXEA

Baserriaren izenak adierazten duen bezala, garai batean errota zegoen bertan. Errotaz gain baita ola ere. Etxeko sukaldean hartu ninduten Marta eta Juan Jose, ordea, ez dira errotaz zein olaz oroitzen. Izan ere, errota-Etxe baseria oso zaharra da. Mariaren arabera, "orain dela gutxi esan digute gure baseria Laurgain auzoko zaharrenetako dela. 1623an lurperatu omen zuten Laugainen baserriko norbait".

Baserria Narrosek markesarenaren izan zen garai batean ez da denbora asko Aramenditarrek baseria erosizutela. Lehen garia izaten omen zen errenta.

Ez dira garai onenak Errota-Etxe baserriarentzat. Juan Josek kazaltzen duenez, "orain behi bakarra, olioak, atariako baratza eta pinuak bakarrik dauzkagu. Pinua saldu egiten dugu eta baratzak geronentzako adina ematen digu. Lehen bagenuen zerra arraunak egiteko, baina orain, talterra goian diago".

"Garai batean meloko-tolak ere bagenituen", dio Mariak. "Orduan ez zen za-



ten kanpoko sagar edo meloko-tolik. Kanpoko fruta bakarrak platanoak eta naranjak izaten ziren. Naranjak udaberrian bakarrik eta platanoak beti Eskola-stikanean zintzilik".

## UDABERRIRAKO SAGARDOTEGIA

Baserri zaharraren ondoan haritzko etxe ederra eta handia egin dute. Ilobak udaberriko sagardotegia irekitzeko asmea omen dauka. Mariari ez dio grazia gehiegirik egiten sagardotegiaren ideak. "Zenbat eta gauza gehiago eduki, orduan eta lan eta gehiago egin behar da", dio urte askotako eskarmentua duenaren jikituriaz. Izan ere, kontu zaharrak berritzen hasi aurretik tolarcen ari ziren lanean.

Sagardoa aspalditik egiten dute Errota-Etxen, "baina

etxerako bakarrik".

Ea baserriko bizitza asko aldatu den galdetzean, "Jesus!" luzea bota dute biek batera. Mariaren iritziz, "baserrian gaizki bizitzen da, lanean jardun behar baita beti. Ez dugu libertaderik, eta lana ez da behin ere bukatzen. Orain makinak desentxufatu egiten dira egun batean behin-behin, baina animaliak ez, Gauza bizek lana asko ematen dute".

## ESNE PARTITZAILE BIZKORRA

Mariak 25 urte jarraitu banatu zuen esnea kalean, eta orain garai hartako kontuak gustora eta patxadaz kontatzen dituen arren, ez zaizkio ahaztu estuasun eta sufrimenduak. "Aurrena astoarekin ibiltzen nintzen eta eskuko karroarekin gero, Gainera, ez zegoen kamio-

rik, hemen bideazken. 1952an kamioa egin zutenean airodoasko ibiltzen nintzen, hura martxa eramatzen nuen!. Lehengo bide zaharrean curia egiten bazuen han ibiltzen nintzen urari aldegiten, lokatzari aldegiten, zuloari aldegiten, kinki-kanka. Kamioa egin zutenean ez nuen lurrik jotzen!".

Errota-Etxen arazo dexente izan dute urarekin. Beti izan dituzte uholdeak, eta Mariak, 1949ko urriaren leian ura noraiho tritsi zen erakusteko eskua txorkatilletik gora jartziz, "hemen holako bat bai", dio.

Baserriaren eforkizunari dagokionez, baserriaren jarraituko duen inor ez dutela dio-te biek batera, ez etsitu eta motz battekin. Juan Joseen arabera, "hurrengoak ez du segituko eta haren hurrengeak gutxiago".

## jaiotakoak

Alaitz Miera Lertxundi, urriaren 21ean

### Aian

Ez da inor jaio:

## ezkondutakoak

J. Francisco Goikoetxea Elzagirre eta Ana Amelia de Jesus, irailaren 19an

F. J. Javier Fernández Vélez eta Maite Lazcano Alday, urriaren 2ean

José Antonio San Sebastián Murua eta Belén García Liñán, urriaren 12an

José António Eizagirre Arpeitía eta Juana Mari Amuti Errategi, urriaren 19an

F. J. Javier Mendizábal San Pedro eta Ainhoa Sukia Etxeberria, urriaren 26an

### Aian

Carlos Paniagua Guasch eta M. Angeles G. de Txabarti Alustiza, irailaren 21ean

## hildakoak

Florenzio Gorri Lizarraga, urriaren 15ean, 94 urte

Emilia Aranguren Mujika, urriaren 16an, 97 urte.

### Aian

Martín Elosegui Beldarrain, urriaren 12an, 17 urte

## zorionak

### Jorge Oteizari

Jorge Oteiza oniotarrak laurogeita zortzi urte bete ditu orain dela oso gutxi. Gainera, atera bemi du bere azken liburua: Ez da gero marka makala edade hometara ailegatu eta, oraindik, horrelako lanak hartzeko indarra izatea!

Zononak eta urte askoan!

## zoriotxarrak

### Pixañero nazkagarriei

Zenbaitek —eta gehienetan gizonezkoek— edozein toki ona dute pixa egiteko. Hainbat lekutan nabarmena izaten da pixa usaina, eta batez ere, eliza eta Salatxo inguruau.

Ea batzuek komunak zertarako dauden ikasten duten.

**bai-ondo**  
Supermerkatua  
Telefona: 83 47 50

**Carmen**  
ARRAINDEGIA  
.....  
Telefono: 83 05 37

**TXOMIN**  
arraindegia  
Tfnoa: 83 27 47

# Orain dela...

## 25 urte

Orain dela 25 urteko urrian, aurten bezala, oso eguraldi ona egin zuen eta arrantzaleak pozik zeuden egindako kanpainarekin. Aurreko albiste horiek, ospatu ziren ezkontza ugariak, autopistaren inaugurazioa eta ondorengo berri hauetan ziren aipagat 1971ko urriko La Voz de España egunkarian.

✓ Udaleko zinegotzi eta funtzionarioek omenaldi bat egin zioten Jesus Mari Aiestaran alkateari. Ventura Barjacoba alkateordeak uztailaren 18an Francisco eman-dako Cisneros Ordeneko Zaldunaren Gurutzea ezarri zion. Gurutzeaz gain, dedikatoria bat, eta zinegotzi eta funtzionarien sinadurak zituen pergamino bat oparitu zuten.

✓ Urriaren 10ean Iparragirre saria eman zioten Benito Lertxundir Bilbon. Ez kanta beltza abestiagatik. Sari hau hilabetero ematen zioten Bilboko Herri Irratian entzuleek gehien eskatutako abestiaren egileari.

Ondoren, hiru desafiores berri daukagu:

✓ Joxe Inazio Saiz "Luzarbe-Erdi" baserrikoak Joxe Antonio San Sebastian "Etxatz" baserrikoa desabatu zuen. Jakinarazi zionez lau eta bedertzti arroa bitarteko harri zilindrikoarekin edo mutillak bezalako bi pislatu behar zuen harri kubikoarekin jokatuko zion buruz buru. Desafioa onartzeko edo horri buruz hitz egiteko urriaren 25ean gaueko bederatietatik ham-

rrak arte Igeldoko Polipaso tabernan egongo zen.

✓ Iruntxiberri alarrak Oiartzungo Garalarren aurka jokatu behar zuen desafioa bertan behera geratu zen federazioak ez zuelako jokatzeko baimenik eman. Desafioak bi froga zituen. Lehenbizi segan egin behar zuten eta gero korrika, baina azken momentuan ez zuten jokatzerik izan eta jendea haserretu egin zen. Baserrrik esan bezala "bost xentimoren errurik ez eta modu txarrean geratu".

Azkenik, Teodoro Irazusta "Usategieta" Alan bizi zen Martin Mendizabal desafiatu zuen eta hona hemen hitzez hitz egunkarian, Basarriaren *Nire bordatxotik* sailean azaldutako desafioaren berri:

\* Nik Teodoro Irazusta *Usategieta*, Adunan jalo ta Aian bizi dañ Martin Mendizabal desaplatzen det.

Amar arruako arri zilindrikoekin jokatuko buruz buru amarna minutuko iru tanda egiaz bakoitzak.

Arrien gorakoa (altura) ogeitalau ontzatik ogeitzoritzi ontzara tartekoa izango litzake. Bakoitzak aukeratu dezala onglen datorkion neurria.

Mendizabal zortzi ta bederatzi arruako arriak gogozkoago balitzatzkio, ontaz ere patxaran itzegingo genduke.

Datorren larunbatean, urriak 23, Donostiko bar Urolan aurkituko nau gabeko bederatietari. Azaldu bedi bertara, ondo baderitzkio".

**ARGI-GAIAK**  
elektrizitatea

Ithurria, 11 Tfnoa: 83 17 74

*daddy*

*Udazken eta negurako  
arropa berria*

Estropalari kalea, 12 - Telf. 13 28 16 - ORIO

**LIZASO**  
**ALTZARIAK**

Eusko Godari 46 ☎ 83 07 84  
Aita Lertxundi 6 ☎ 13 33 01

**ITURAIN**  
**estankoa**

Aritzaga Plaza ☎ 13 44 73

*ertza*

Telefona: 83 09 29

## Tongo

José Luis Korta, arraunari, patro eta entrenatzailea. Euskal arraunketak historio osoan eman duen onenetakoak. Horretan ez dago zaintza handirik. Hitz egiten ere ora da, oso, etorri haundi, bizi osuna, giza, asuradiz eta induki haundiako gauzak esaten dituena, kiroari gehienek ex-zenak. Horregatik jotzen dute kazetari guztiek berenengana, bescarraunlariak aiboratuaztuz, orain ni arin naizen bezalaxe. Aurtzen leku guztietan itan dugu haren berri, eguzkian, irratian, telebistan... Era, zer da? eta: "Orion asko sustritu dert aurtzen", "Orionik josteko gogoa daukat", "beste leku batzuetan gihago ordaindiko ikusleak", eta borobitzeko. ETBn: "Joan den artean baten bauk tongo egin zuen Kombran".

Asko hitz egiten dutenak haniko sargoko arriskua du, eta uste dut azken esaldarekin hona egin doeb: mugia gainditzu, hitz tabua alpatu, ur saldu eta arriskututu sarta. Gauza jakina da izenik ere merodi ez duten batzuek del anonimo itsusiakegin diskoetako Jose Luis eta, beraz, baduak arrazoiak fuserre egoteko. Baina de horien egileak bere buruarekin daudela problematik haundienaz.

Kortak eskatsum esca da nahi duen lehura pizko, gehiago ordaindu edo ez. Baina José Luisak jakin beharko luke berri honetik. Crick, asko eman dia berari, perno horrix etorri zenelek direktiba osoaren erabakiko agintza eta eskatasuna erabakiko hartzeko, sekub ez beztako ligantzaile taldea, la herri osoaren laguntza eta miresmera, arraunariei egindako ongi etorri mecan garbi gelditu den berria. Horrenbeste gauza on dituena alderdi txikirak zezinarratzetan jardutes ez da gizalego. Baiteteke klubaren barrauan bertakoko osasuna, baina komunikabideen aurrean eman duen irudia eskerxarreko batena izan da.

Arraunariei estropadan edo bukatu ondoren esandako hitz guztiek beriloagarririk izan dadeke, horiek taktika taten barrukoak direnean, estropadan arraunariak ez lasitzeko eta tercio puntu batzuk eusteko baldin badira. Baina arraunariak tongo egin zuela esatea, noiz eta urtebeteara eta denboraldi zoragarri hau bukatu berrian; norik eta estropadan hartu patro zioenak eta non eta ETBn. Momentu, pertsona eta lekukik deseglikienak, hirurak.

José Luisak gure artean argi dezala urte askoan, bidera asko irabazi ditu eta udalekoeko balkioan askoan ikuszeko sukera izan dezagula. Hori da oriora gehienok nahi dugun. Horretarako gehiagoago ortsindu behar bazio eta aldi badi, egin dezakela. Nialdeko Bains trápu zikinak, baldin baduade, erroxeko. Era hemendik aurrea neurtu dituena bera hitzen ondorio mingarrisk, beste arraunariek ere badute-eta bhotztois.

● INAKI ITURAIN ●

## KANPOAN DAUDEN ORIOTARRAK



## Mirian Illarramendi Barjakoba

Mirian, neska gazte asko bezala, au-pair joan zen Ingliterrara ingelesa ikasi eta hango bazterrak ezagutzeko asmoz. Urtarrilean, hara joan zela, bost urte beteko dira.

Lehenengo urtea, lehen esan bezala, au-pairegon zen Londresetik hegoaldera dagoen Bath hirian. Han urtebete egin eta gero Londresera joan zen eta gerotik han bizit da. Au-pair izateari utzi, eta hainbat lanetan arttu da, batez ere zerbitzari. Orain jatetxe italiar-espaniar batean ari da lanean, baina etorkizunari begira eskaparate-apaintzaile ikastaroren bat egiteko asmoa du.

Londreseko iparmendebaldean bizi da senargaiarekin eta bertako ohituretara egin da. Bizimodua han egin du eta momentuz ez du itzultzeko asmorik.

Hemengo gauza bat batino gehiago somatzen du saltan, baina zerbaite alpatzekotan eta, berarekin hitz egin genuenean gaitorik zegoela kontuan hartuta, amaren mimoak hartuko lituzke gogoz. Familia gogoan izaten du oso, eta etxetik joandako gehienak bezala, hemengo janariarekin ere asko gogoratzenten da. Batez ere oso gogoko dituen hestebeteak, txorizoa, urdalazpikoa... eta arraina. Horretaz gain lasaiago bizi-tzea gustatuko litzaiok. Londreseko

bizimodua oso azkarra eta estresantea baita. Distantziak ikaragarri luzeak dira, eta dena planifikatu behar izaten da, baina aldi berean Londresek oso gauza interesgarriak eskaintzen ditu. Han eskaintza kulturala oso aberatsa da eta mila gauza egin edo ikus ditzakezu, horretarako diru asko behar duzula egia bada ere. Independentzia ere oso handia da eta ez dago herri txikietako kontrol sozialik.

Bestalde, mundu osoko jendea eta haien ohiturak, janariak eta abar ezagutzeko aukera dago Londresen. Londres ez baita Ingliterrako hiriburua solik, baizik eta hainbat herrialde eta arrazatako topalekua. Hori Mirianen iritziz oso aberasgarria da, norberaren ikuspegia zabaltzeko aukera ematen duelako eta bizitzeko modu diferente asko daudela ikusteak zurea beste modu batera baloratzeko bide ematen ditzu.

Hori dela eta Mirianek Orloko gazteek animatzen ditu etxetik atera eta beste herrialde, bizimodu eta jendea ezagutzen. Ez da Londresera joan behar horretarako, toki asko baitago munduan, ezta denbora luzerako ere, baina besteari ezagutzea beti da aberasgarria.

# Herri Ikastolan DBHa martxan

*Ikasturte berriarekin  
batera, Orioko Herri  
Ikastolan, 12 urtetik 16  
urtera zabaltzen den DBH  
izeneko etapa berria  
martxan jarri dugu.*

## HERRI IKASTOLA

96/97 ikasturtearekin batera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ezarri da Euskal Autonomi Elkartean. Jakin-duzueñez, Hezkuntza Sistema berriaren barruan, derrigorrezko ikasketetan, banaketa berria egiten da:

*Haur hezkuntza: 0-6 urte  
Lehen hezkuntza: 6-12 urte  
DBH: 12-16 urte*

Azken etapa honen ezarespena izan da arazo gehien sortu duena, herri txikietaik haurrak 12 urterekin irten beharra ekarri baitu.

Hau honela izanda, Orioko Herri Ikastolak, Ikastolen Federazioaren laguntzaz, asko borrokatu du etapa berri hori lortzearren, eta amets gaizto ugarien ondoren, azkenik DBHa ematea lortu du.

Etapa berria martxan jarritzeak hainbat arazo sortu ditzigu: leku falta, irakasleak behar izatea, eta abar. Baino Batzordea osatzen duten gurasoen apostu sendoari esker, arazoetl aurre egin eta kurtsoa normaltasunez hasi dugu.

## LEKU FALTA

Etapa berria martxan jarritzeak ikas-gela eta bestelako gelen behar izana ekarri dugu. Honi aurre egiteko soluzio ezberdinak arabili ziren eskuarteak: Zaraguetako

**Herri  
Ikastolako  
gela aurrefa-  
brikatuetako  
bat**



eraikuntza konpartitua, Katedrako eraikuntzan ikasgela egokitu, moduluak alokatu.

Zaraguetako eraikuntza konpartitzeko, Hezkuntza Sailak bere oniritzia eman behar zuen, eta hasiera batetan baileta eman bazuen ere, azkenean baimenik ez genuen izan.

Katedrako eraikuntza ego-kitzeak, batek, arazo ekonomikoak zituen eta, bestetik, herritik beste taldeen erabilera oztopatzan zuen. Bezaraz, aukera hau bertan behera geratu zen.

Azkenik, irteera bakarra moduluak alokatzearena izan zen eta honek 4 milioko kostoa ekarri dio ikastolari. Esan behar da, soluzio hau ezinezkoa izango zela. Udalak Ikastolako aurrekaldea egokitu ez balu.

Horrela, bada, aurtengo DBHn 4 ikasgela ditugu aurrefabrikatueta eta beste hiru gela (laborategia, taile-

rra eta plastika gela) Katedrako eraikuntzan.

## IRAKASLEGOA

Etapa berria martxan jarritzen eta gela geitago zabaltzeak irakasle gehiagoren beharrizana sortu zigun.

Hau horrela izanik, Irailaren hasieran dei zabala egin zen era ezberdinak lizenziatuak eskatuz.

Detaren eraginez jasotako curriculum-ak ugariak izan ziren eta aukeraketa zorrotz baten ondoren, 4 irakaslez eta 4 gurasoz osatutako kontratacio mahaiak 6 irakasle hautatu zituen.

Hona hemen gaur egun DBHrako dugun plantilla eta irakasleek duten lizenzia-tura: Joanito Beristain (Historia), Demetrio Esnaola (Filosofia), Jon Rekondo (Biologia), Iñaki Zarauz (Fisika), Begotxu Olaizola (Euskal Filologua), Iñaki Beraza (Soin Hezkuntza), Miren Berasa-

luze (Arte Ederrak), Mikel Haranburu (Pedagogia eta Psikologia) eta Ion Erbin (His-toria).

## AURRERANTZEA

Orioko Haurrek DBHa heztiaren egiteko aukera izatea erronka zen ikastolarentzat eta martxan ikustea harro-sentiarazten gaitu. Baino DBHko 4 ikasturteak osorik jartzeak lan berriak ekarriko ditzigu, eta nagusiena lekua aurkitzea izango da. Azken hau izango da, hain zuzen, hurrengo ikasturterako lana.

## 25. URTEURRENA

Bukatzeko esan, aurtengo ikasturtean ikastolaren 25. urteurrena ospatuko dugula.

Aurrerantzean honen inguruau antolatuko diren ospakizunen berri izango du-zue.



## **EZETZ EZAGUTU! lehiaketa**

Aiarak dira argazki horietan azaltzen diren haurrek. Orain dela 25 bat urte atereña da Monja-ebxe atarian. Afana lortu nahi baduzue **eserita daudenen izen-abizenak** asmatu beharko dituzu.

Bigarren galdera: Zenbat urterekin hasi zen Karmele Aranburu Herni Irratian?

Oran arte egin dugun bezala, ahan bat zozketatuko dugu asmatzaileen artean.

Afana Aiako **Jauregi jatetxean** izango da.

Erantzunak, **azaroaren 20rako** bidali behar dizkigu zue, hebiez honetara:

KARKARA aldizkaria Ezetz ezagutu! lehiaketa. Henrike plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara)

Aurreko irabazlea Jeronima Lertxundi izan da. Hau da berak eman zigun erantzuna:  
Luis Lertxundi, Manuel Urkizu, Joxe Mari Ibargoien, Antonio Uranga eta Laureano González de Txabarri.

Bigarren galderaren erantzuna: Demetrio Esnaolaak zortzi urte emari zituen Ruandan.

# Jauregi

Gozategi plaza, 9 AlA Telefonoa: 83 02 15

Euskal Herriko jaki tipikoak.  
Bereziki piper beteak, bakailaoa,  
legatza, kogotea eta txuleta

## OINARRIAK

- 1** 'Euskaraz Gazte' 4. literatur lehiaketaren helburua Orioko gazte-jendearen artean idazteko zaletasuna suspertzea da.
- 2** Lehiaketara aurkezten diren lanak euskaraz idatziak izango dira.
- 3** Lanak jatorrizkoak eta inon argitaratu gabeak izango dira. Ez da onartuko beste lehiaketaren batean saria jaso duen lanik eta, ezta ere, beste hizkuntzaren batean idatzi eta lehiaketarako euskaratutakonik.
- 4** Lehiaketan parte hartzen dutenek oriotarrak izan behar dute edo Orion bizi.
- 5** Lehiaketan parte hartzeko gutxienez hamalau urte izan behar dira, eta, gehienez, hogei eta bederatzi.
- 6** Lanen luzera librea izango da.
- 7** Lehiaketak bi modalitate izango ditu: ipuina eta olerkia.

### 8 Lanak aurkezteko era:

Lanak makinaz idatziak aurkeztu beharko dira.

Lanak, onartua izateko, titulua besterik ez du izango agerian. Idazlearen izena ezin izango da inon aipatu. Lanarekin batera kartazal itxi bat aurkeztu beharko da, harruan egilearen datuak jasoko dituena eta kanpoan bere lanaren titulua besterik agertuko ez duena.

Adierazi beharreko datuak: egilearen izen-deiturak, adina, helbidea eta telefonoa.

### 9 Sariak

#### Ipuinen modalitatea

1. saria: 40.000 PTA
  2. saria: 25.000 PTA
  3. saria: 15.000 PTA
- Bi akzesit, bakoitzaz 10.000 PTAKoa

#### Olerkien modalitatea

1. saria: 40.000.- PTA
  2. saria: 25.000.- PTA
  3. saria: 15.000.- PTA
- Bi akzesit, bakoitzaz 10.000 PTAKoa

Akzesiten bidez lortu nahi dena hau da:  
lehenbiziko aldiz aurkezten direnei sarien bat irabazteko aukerak erraztea.

- 10** Pertsona batek ezin dezake sari bat baino gehiago jaso modalitate bakoitzean.

- 11** **Epaimahaia.** Epaimahaia Udaleko Euskara Batzordeko kide batek, KARKARA aldizkariko kide batek, Udal Euskara Zerbitzuko teknikariak eta Euskaltegiko irakasle batek osatuko dute.

azaroaren 15a

Epaimahaia hutsik utz ditzake sariak.

- 12** **Lanak aurkezteko tokia eta epea.** Lanak Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkeztuko dira ~~urtean~~ 31 baino lehen.

- 13** Orioko Udalak berea izango du sanitutako lanak argitaratzeko eskubidea. Gainontzeko lanak itzuli egingo zaizkio eskatzen dituenari.

